

# UDALARI ESKABIDEA EGITEKO PROZEDURA

## **KONTZEPTUA EDO DEFINIZIOA**

Eskabidea da bide ofiziala edozein motatako eskabide udalari eman edo udaletik jasotzeko.

## **IZAPIDETZEA**

Bi aukera daude:

1. Zuzenean INTERNET bidez [udala@idiazabal.info](mailto:udala@idiazabal.info) helbide elektronikora bidaliz.
2. Udal Erregistro Nagusira joatea, Plaza Nagusia 3, 20213 Idiazabal

## **BULEGOKO ORDUTEGIA** 8:30-14:30

## **HARREMANETARAKO**

- Erregistroa: Idiazabalgo Udala, Plaza Nagusia 3, 20213 Idiazabal.
- Telefonoa: 943 187100
- Posta elektronikoa: [udala@idiazabal.info](mailto:udala@idiazabal.info)

**EPEAK** Edozein momentutan egin daiteke.

**ZENBATEKOA** Doan.

## **DATUEN BABESA**

Prozedura honen bidez eskuratutako datu pertsonalak adierazitako izena eta helburua duen fitxategian jasoko dira; fitxategiaren erantzulea Idiazabalgo Udala da.

- Fitxategiaren izena: DOKUMENTUEN SARREREN ETA IRTEEREN ERREGISTROA
- Fitxategiaren xedea: Udaletxean dokumentuen sarrera eta irteera erregistratzeko fitxategi nagusia
- Aurreikusitako lagapenak: Ez dira aurrikusten

Fitxategiaren berri eman zaio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari, eta datuen segurtasuna bermatzeko behar diren segurtasun neurriak dauzka. Edonola ere, eskabide-orria sinatzeak esan nahi du eskatzailea guzti honen jakitun dagoela, eta onspena ematen duela bere datuak adierazitako helbururako erabiltzeko, baita goian adierazitako helbururako datuak lagatzeko ere.

Emandako datuak atzitzea eska daiteke, bai eta datuak zuzentzea, ezereztea eta aurka egitea ere, beti ere indarreko legediak xedatutakoa kontuan hartuta. Horretarako, eskaera bat bidali behar zaio, idatziz, udalean datuak erabiltzeko ardura duen pertsonari, ondorengo helbidera:

IDIAZABALGO UDALA / Ayuntamiento de Idiazabalgo  
Plaza Nagusia 3, 20213 Idiazabal

Eskaerak datu hauek izan behar ditu: izen-abizenak, jakinarazpenetarako helbidea, eskatzen dena zehatz-mehatz adierazita, data, interesdunaren sinadura eta fitxategiaren izena.

Ondorengo estekan eskura dezakezu eskabide-orri normalizatua edota baliatu zaitzke eskubide horiez:

## **DATUEN BABESA**

Azkenik, eskatzaileak adierazten du eman duen informazioa benetakoa dela; ez duela berarentzat kaltegarria izan daitekeen informaziorik ezkutatu edo aldatu; eta badakiela benetakoa ez den daturen bat emanez gero, edo daturen bat ezkutatzuz gero, ezin izango dela zerbitzua behar bezala eman.